


Año LIV. urtea
133 - 2022
Urtarrila-ekaina
Enero-junio



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

**Irudikapenetik
esperientziara: euskal
literaturaren ikerketa
feministaren hastapenak
XX. mendearen bukaeran**

Maite Luengo Aguirre

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LIV. urtea - N.º 133. zk. - 2022

Urtarrila-ekaina / Enero-junio

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Goizuetako azentueraren garapena kokatzen Euskara Batu Zaharraren prosodia zehazteko: proposamenen ebaluazioa
Ander Egurtzegi 9

Paul Broca, garunetik hizkuntzara euskararen bideetatik
Joanes Atxa Olaiz 37

Oltzako aldaeraren inguruan (2 – Ihabarko azpialdaera)
Koldo Artola 61

Irudikapenetik esperientziara: euskal literaturaren ikerketa feministaren hastapenak XX. mendearen bukaeran
Maite Luengo Aguirre 115

Altsasuko hizkuntza-paisaiaren azterketa euskararen biziberritzearen testuinguruan: merkataritzako esparrua
Idoia Granizo Uribarrena 131

Euskal doinuaren ulermena: Markinako galderak eta baieztapenak
Izaro Bedialauneta Txurruka, Jennifer Zhang, José Ignacio Hualde 159

Pertsona murriztapenak ditu egitura inpertsonalak: euskararen kasua
Ane Odria, Ane Berro, Beatriz Fernández 191

ERRESEINAK / RESEÑAS / REVIEWS

Euskal literatura itzuliaren egiturak eta islak (1975-2015)
Ane Irizar Melero 223

VARIA

Irigarai familiaren funtsa Nafarroako Errege Artxibo Nagusian: katalogoa (I. dokumentu argitaratuak)
Ekaitz Santazilia 229

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals 259

Irudikapenetik esperientziara: euskal literaturaren ikerketa feministaren hastapenak XX. mendearen bukaeran

De la representación a la experiencia: comienzos de la investigación literaria feminista vasca a finales del siglo XX

From representation to experience: the beginning of feminist Basque literary research at the end of the 20th century

Maite Luengo Aguirre

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU & Université Bordeaux Montaigne

maiteluengoaguirre@gmail.com

<https://orcid.org/0000-0001-9238-3480>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv133.4>

Ikerketa hau UPV/EHUn ikertzaileak prestatzeko kontratazio-deialdian lortutako kontratuari esker finantzatu da (PIF/BUR 19/02). Era berean, bi ikerketa-proiekturen baitan kokatzen da: alde batetik, *Gorputza, egiletasuna eta generoa euskal kultur sorkuntzan* (US21/17), UPV/EHUK babestua, eta *Desnortadas. Territorios del género en la creación artística contemporánea* (PID2020-115157GB-I00), Estatuko Ikerketa Agentziak (AEI) babestua.

Jasotze data: 2021/12/31. Behin-behineko onartze data: 2022/02/27. Behin betiko onartze data: 2022/03/06.

LABURPENA

80ko hamarkadatik aurrera, euskal literatur kritikan eta ikerketan feminismotik egin-dako ekarpenak agertzen hasi ziren. Joera horren analisia hiru argitalpenen bitartez egin dugu: Itxaro Bordaren *Hogoigarren mendeko emakumeak idazle: antologia eta ohar zenbait* (1984), *Jakin* aldizkariko *Emakumea eta literatura* alea (1987) eta Linda Whiteren *Emakumeen hitzak euskaraz: Basque Women Writers of the Twentieth Century* tesia (1996). Gainera, hiru iturri horiek antropologian eta artean egondako joera parekoekin alderatu ditugu. Horrela, emakumeen arketipoetatik esperientzia erreale-rako bira proposatu zutela nabarmentzen dugu, emakumeen esperientzien aniztasu-nean oinarrituta.

Gako hitzak: emakume idazleak; emakumeen idazkera; esperientzia; arketipoak.

RESUMEN

Desde los años 80, comienzan a surgir contribuciones a la crítica e investigación literaria vasca desde el feminismo. Dicha tendencia ha sido analizada mediante tres publicaciones: *Hogoigarren mendeko emakumeak idazle: antologia eta ohar batzuk* de Itxaro Borda (1984), el ejemplar *Emakumea eta literatura* de la revista *Jakin* (1987) y la tesis de Linda White *Emakumeen hitzak euskaraz: Basque Women Writers of the Twentieth Century* (1996). Además, hemos comparado esas tres fuentes con las tendencias análogas existentes en antropología y arte. Así, destacamos que propusieron un recorrido desde los arquetipos de la mujer hacia una experiencia real, a partir de la diversidad de vivencias femeninas.

Palabras clave: mujeres escritoras; escritura femenina; experiencia; arquetipos.

ABSTRACT

From the 80s on, contributions to Basque literary criticism and research from feminist perspectives began to appear. An analysis of this tendency has been made through three publications: *Hogoigarren mendeko emakumeak idazle: antologia eta ohar batzuk* by Itxaro Borda (1984), the *Emakumea eta literatura* issue of the journal *Jakin* (1987) and Linda White's thesis *Emakumeen hitzak euskaraz: Basque Women Writers of the Twentieth Century* (1996). Moreover, we have compared these three sources to existing analogous trends in anthropology and art. We emphasize that they proposed a turn from the archetypal to actual experience, based on the diversity of female experiences.

Keywords: female writers; female writing; experience; archetypes.

1. SARRERA. 2. CORPUSAREN AURKEZPENA. 3. AURRETIK EGINDAKO EKARPENAK ETA GURE KOKAPENA. 4. POSIZIONAMENDU FEMINISTA: ALDARRIKAPENEI BURUZKO PARAGRAFOAK. 5. EMAKUMEEN IDAZKERA: BIGARREN OLATUKO FEMINISMOAREN ZIRRIKITUETATIK HARAGO. 6. IKUSPUNTU ARKETIPIKO ETA MASKULINOAREN BERRIKUSPENA. 7. ESPERIENTZIA ERREALERANZKO BIRA: DIBERTSIFIKAZIO GARAIA. 8. ONDORIOAK. 9. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

80ko eta 90eko hamarkadetan zehar, emakumearen eta literaturaren arteko harremanak ikergai bilakatzen hasi ziren euskal testuinguruan. Artikulu honetan hastapeneko ekarpen horien inguruko analisia egingo dugu. Horretarako, hiru lan gako hautatu eta horien bitartez irudikapenetik esperientziarako interesaren bilakaera aztertuko dugu. Aukeratutako lanak hainbat formatutako testuak dira. Alde bate-tik, Itxaro Bordak 1984an plazaratutako *Hogoigarren mendeko emakumeak idazle: antologia eta ohar zenbait* liburua (1984); bestetik, *Jakin* aldizkariak 1987an argitaratutako 45. alea, *Literatura eta Emakumea* gaiari eskainia (1987). Azkenik, Linda White-k 1996an Nevadako Unibertsitatea, Renon defendatutako tesia, *Emakumeen hitzak euskaraz: Basque Women Writers of the Twentieth Century* izango dugu aztergai¹.

Hiru testuen azterketaren bitartez, irudikapen arketipikoetatik esperientzia errealeranzko bira aztertzea da gure helburua. Aldaketa hori ezaugarritzen laguntzeko, bi estrategia erabiliko ditugu: lehendabizikoa, autoreen feminismoarekiko zuten posizioaren behaketa; bigarrena, emakumeen idazkerari buruz zeukaten iritzia. Gero, arketipoen eta esperientzia errearen azterketa egiteaz gain, literaturako ekarpen horiek

1 Linda Whiteren doktoretza-tesia kontsultatzeko, UPV/EHUko Bizkaiko campuseko liburutegian dagoen kopia baliatu dugu.

antropologia eta artearen ikerketan egondako antzeko proposamenekin alderatuko ditugu, partekatutako joeraren ñabarduren berri emateko².

Hipotesi nagusia honako hau da: aztertutako iturriek 80ko eta 90eko hamarkadetan emakumeen irudikapenak aztertzetik, esperientzia aztertzeko bidea irekitzera pasa zirela, esperientzia horien aniztasuna azpimarratuz, emakume izatetik harago. Hipotesi hori hezurramitzeko, artikuluan zehar, zenbait galderari erantzungo diogu: Zein jarrera zeukan aztergai dugun *corpus*aren idazle bakoitzak? Bigarren olatuko feminismoan oinarritu baziren ere, desberdintasun sexualaren ikuskeraren mugetatik harago joaten ahalgindu ziren? Zer nolako bidea ireki zieten ekarpen horiek gerora garatutako ikerketei?

2. CORPUSAREN AURKEZPENA

Artikuluan zehar ikertuko ditugun argitalpenen hautaketa egiterakoan, irizpide nagusi bat jarraitu dugu; hots, bakoitza bere tipologian aitzindaria izatea. Hurrengo lefroetan, iturri bakoitza testuinguruan kokatu eta zehazki zein atal ikertuko dugun emango dugu aditzera.

Hasteko, *Hogoigarren mendeko emakumeak idazle: antologia eta ohar zenbait* kokatuko dugu. Argitalpen hau 1984. urtekoa da. Hala ere, Itxaro Bordak jada bi urte lehenago, 1982an, *Maiatz* literatur aldizkarian emakume idazleak berreskuratzeko nahia adierazi zuen, alegiazko Gaxuxa Kakoliren berreskurapenaren bitartez³. Berreskuratze nahi horri jarraikiz, aztergai dugun liburuan, bere garaiko euskal emakume idazle batzuen lanak bildu eta ezagutaraztea izan zuen helburu sortutako antologian. Artikulu honetan, zehazki, hasieran Bordak idatzitako oharrak izango ditugu ikergai, beste idazleen testu-bilketa alde batera utziz, gure helburua Bordaren motibazio eta ideiak azterzea izango baita.

Bigarren iturria *Jakin* aldizkariko ale monografiakoa dugu. Ale horretaz gain, literaturari lotutako beste bi publikazio berezi bultzatu zituen aldizkariak garai hartan⁴. «Literatura eta emakumea» aletik, zehazki, aztertuko ditugun testuak honako hauek izango dira: Lehendabizi, bereziki landuko dugu Laura Mintegik egindako sarrera «Emakume-literatura: zer da eta zertan da» (Mintegi, 1987). Horrez gain, aztergai izango da Tere Irastortzaren «Emakumezkoa gizonezkoen literaturan: Euskal literaturari errepassoa» (Irastortza, 1987).

2 Izan ere, antropologiaren alorrean jada 80ko hamarkadatik aurrera, Teresa del Valleri esker emakumeen bizipen errealei buruzko ekoizpen zientifiko oparoa izan zen; eta arte plastikoei dagokienez, esperientziarako joera aldaketa berantiarra izan zen arren, XX. eta XXI. mende aldaketako urteetakoa, antzeko ezaugarriak izan zituen.

3 1982ko abuztuko *Maiatz* aldizkariko bigarren alean Bordak berak asmatutako XIX. mendeko Gaxuxa Kakoliren «Emazte arruntaren koplak» publikatu zituen (Borda, 1982a, 25. or.). Ondoren, hirugarren alean, zenbait komentariorekin batera argitaratu zituen alegiazko Kakoliren beste lan batzuk (Borda, 1982b, 30.-33. or.).

4 Bata, guk ikertuko dugunaren aurreko alea, 1987ko *Bertsolariak*; bestea, antzerkiari eskainitako 1985eko 37. aleko «Euskal antzerkia 1976-1985» atala. Hala ere, bai bertsolaritzari, bai antzerkiari eskainitako horietan, ez zen emakumei buruzko aipamenik egin.

Whiteren tesiari dagokionez –Estatu Batuetan defendatutakoa–, lan nabarmena izan zen euskal emakumezkoen literatura ikusarazi eta ingelesez materiala sortzeko. Gainera, antropologia sozialaren ikuspegia txertatu zuen, Teresa del Valle antropologoak galderak prestatzen lagundu baitzion, Itxaro Borda, Arantxa Iturbe, Mariasun Landa, Amaia Lasa eta Laura Mintegi elkarrizketatzeko. Guk sarrerari eta metodologiari eskaintako kapituluak aztertuko ditugu, eranskinekin batera⁵. Atal horiek aztertzeak Whiteren lan egiteko era eta bere ideien funtsa ulertzen lagunduko digu.

3. AURRETIK EGINDAKO EKARPENAK ETA GURE KOKAPENA

Corpusa osatzeko hautatu ditugun hiru lan horiek bi berrikuspenetan agertu dira jadanik. Alde batetik, 1999an Mari Jose Olaziregik «Intimismoaz haraindi: emakumezkoek idatzitako euskal literatura» lanean, emakume idazleen inguruan egindako ekarpenen berrikuspena egin zuen «Zenbat gara?» atalean. Berrikuspen horretan txertatu zituen ikergai ditugun lanak; alegia, Whiteren, Bordaren eta *Emakumea eta literatura* aleko kideen ekarpenak aurkeztu zituen, azken horretan arreta Laura Mintegiren artikuluari bideratuz, bereziki (Olaziregi, 1999, 16.-18. or.). Bestalde, urte batzuk geroago, UPV/EHuko Euskal Ikasketak graduan, Ione Etxeberriak bere Gradu Amaierako Lanean atzerabegirada panoramikoa egin zuen. «Zenbat idatzi dute emakume ikusezinez?» kapituluan, bereziki Whiteren tesiari (Etxeberria, 2015, 18.-23. or.) eta *Jakin*eko Mintegiren artikuluari bideratu zien arreta (Etxeberria, 2015, 23.-28. or.); eta Bordaren antologia Whiteren bitartez zeharka aipatu zuen (Etxeberria, 2015, 20.-21. or.).

Adierazgarria da berrikuspen batetik bestera 16 urte igaro izana. Izan ere, XXI. mendean zehar euskal literaturan generoari eta gorputz-esperientziari buruzko ekarpenak egin diren arren, ez da atzera begiradarik egin XX. mende bukaerara. Aitzitik, ikerketa honetan beharrezkotzat jo dugu hastapenak ezagutzea. Izan ere, ezagutza horren genealogia bat garatzea ezinbestekoa da, bide-erakusleen pausoak berrikustea, gerora garatutako ikerketak ulertzeko. Gainera, agerikoa da genealogia feministaren kontzeptua azken urteetako euskal giza- eta gizarte-zientzien ikerketan tokia hartzen ari dela⁶. Genealogia feministari buruz hitz egitean, honako definizioari heltzen diogu: «se refiere al proceso histórico-social formado por una red de mujeres que participan en el tejido histórico de influencia, retransmisión y aprendizaje de la cultura feminista» (Güereca, 2019, 22. or.). Artikulu honetan, kultura feministaren barnean, literaturaren josketaren hasierari jarriko diogu arreta, aztergai ditugun hiru iturri aitzindariak gerora euskal testuinguruan loratutako ikerketa feministen mugarri garrantzitsuak direlako.

5 Zehazki, hauek dira atalen izenburu eta orrialdeak: «1. Introduction» (White, 1996, 1.-10. or.), «2. Methodology» (1996, 11.-20. or.) eta eranskinak, hurrenez hurren, «A: The interview questions» (1996, 325.-329. or.) eta «B: Questions for the critics» (1996, 330. or.).

6 Esaterako, horren adierazle ditugu Euskal Herriko mugimendu feministaren bilakaeraren historiari eskaintako *Gure genealogia feministak* liburua (Epelde et al., 2015) eta artearen historiaren baitan, Ane Lekuonak (2021) UPV/EHUn defendatutako tesia: *Euskal Herriko artearen historia feminista baten bila. Genealogia berriak josten. 1950-1972*. Bietan kontzeptu gakoa izan da.

Hala ere, kontuan izan behar dugu artikulu honetan egiten dugun genealogia garai hartako argazki partziala dela. Ikerketaren munduan, maiz ustezko objektibotasunez mozorrotzen dira ekarpenak. Baina literaturaren historiografian, historiarekin orokorrean gertatu bezala, aukeraketa baten ondorioz sortutako diskurtsoa da ekarpena. Are gehiago, Donna Harawayri (1988) jarraikiz, ezagutza oro *ezagutza kokatua* dugu. Hau da, bakoitzaren testuinguruak –bai kulturalak, bai sozialak– eta esperientziak eragina dute ezagutza sortu eta barreiatzeko eran, eta gure pentsamoldea baldintzatzen dute (Haraway, 1988, 590. or.). Artikulu hau euskal esparru akademikoan feminismitik egindako azken urteetako ekarpenen ildoan kokatzen da, esperientzia femeninoak oinarri hartu dituzten lanekin batera⁷. Hori dela eta, euskal emakumeen literaturan esperientzia gorputzaren ikerketa horiei atea zabaldu zien joera ikertuko dugu artikulu honetan; alegia, aitzindariak arketipoak aztertzeak, askotariko esperientziak ikertzera egindako saltoa.

4. POSIZIONAMENDU FEMINISTA: ALDARRIKAPENEI BURUZKO PARAGRAFOAK

Ikerlan honen kokapena argituta, *corpusa* osatzen duten testuen autoreen posizioari bideratuko diogu arreta. Hiru testuetan, agerikoa da kokapen kontziente batetik egiten dela emakume idazleen lanen aldarrikapenaren alde. Esplizituki ageri da hori hiru testuetan. Borda, Mintegi eta White, subjektibotasunetik abiatu ziren hirurak, beren konpromisoa agerian utziz. Aldarrikapen gisa, ezkutatu gabe, motibazio pertsonala adierazten dute hemen aztergai ditugun hiru testuetan.

Antologiaren hasiera-hasieran, argi uzten du Bordak argitalpena egiteko motibazioa. Euskal literatura ikertzerakoan, gizonezkoei eskainitako azterketak ugariak diren arren, emakumei eskainitakorik ageri ez dela salatzen du. Euskal literatura osotasunean ezagutu nahi izatekotan, Bordaren ustez, derrigorrezkoa da autore guztiak kontuan hartzea. Ondorioz, emakumeen idazkerari eskaintzen dizkio liburu horretako orrialdeak, desoreka hori zuzentzeko asmoz (Borda, 1984, 5. or.).

Ondoren, *Jakin* aldizkariko «Emakume-literatura zer da eta zertan da» artikuluan, zeharka bada ere, Mintegiren kokapena antzematen dugu testuan; esaterako, emakume idazle kopurua eta kalitatea nabarmentzen dituenean, ondorengo esaldian: «Literatura femeninoa» (izenak berak konnotazioak ditu) existitzen den ala ez alde batera utzirik, emakumeek egindako literaturaz (gero eta ugariagoa eta hobea) mintzatuko gara» (Mintegi, 1987, 8. or.). Lehendabiziko parentesian, literatura femeninoa, edo emakumeen idazkera, izenaren inguruan problematika bat dagoela adierazten du; bigarrenean, emakume idazleen kopuruari eta kalitateari buruzko komentarioa egiterakoan, balorazio pertsonalari tokia eskaintzen dio, horren alde eginez. Orobat, berdintasunerako

⁷ Euskal literaturaren arloan ildo horretan kokatzen ditugun ekarpen batzuk dira honakoak: *Bertsolaritza feminismitik (bir)pentsatzen* (Artetxe & Labaka, 2019), *Gorputza eta generoa: euskal kulturaren eta literaturaren* (Álvarez & Lasarte, 2012) eta *Desira desordenatuak: queer irakurketak (euskal) literaturaz* (Egaña, 2010). Horietaz gain, bakarka emakume idazleekin egindako Ana Urkizaren (2004) eta Eider Rodriguezen (2019) elkarrizketa bildumak ditugu aipagarri.

nahia agerikoa da, margenean ikertu nahi ez izatea: «Gaia ukitzean asaldatzen gaituen lehen kontua, izena bera da. Emakumea eta literatura. Ez da, guk dakigunez, liburu, artikulu edo txostenik idatzi, ezta ere hitzaldirik eratu, “Gizona eta literatura” gaiaz. Izenak berak marjinazioaren eremuan kokatzen gaitu, ez-ohizkoaren eremuan» (Mintegi, 1987, 8. or.). Ezohiko eremu hori paradoxa da. Alboan utzitako emakume idazleak *Emakumea eta literatura* etiketaren azpian erdigune bihurtu eta bateratuta ikertzean, nolabait literaturaren barnean bazterketa areagotzen da, Mintegiren ustetan.

Azkenik, Linda Whitek tesiaren sarreran motibazio hirukoitza azaltzen du XX. mendeko emakumezko euskal idazleei buruzko ikerketa egiteko grina azaltzeko. Lehenik eta behin, bera emakume idazlea izateak beste batzueganako interesa pizten diola adierazten du. Bestetik, hizkuntza hegemonikoen aldean euskaraz idazten duten emakumezko autoreen kopuru mugatua ikergaia mugatzeko lagungarritzat jotzen du. Azkenik, guretzat garrantzitsuena, idazle horien egoerarekiko jakin-mina adierazten du, bereziki gizonetzko idazleekin alderatuta zein egoera bizi duten ezagutu nahi duelako. Jakin-min horren iturri gisa, bere burua feministatzat jotzen duela azaltzen du (White, 1996, 1. or.). Horrela, arestian aipatutako ezagutza kokatuaren kontzientzia argia antzematen dugu Whiteren hitzen bitartez.

5. EMAKUMEEN IDAZKERA: BIGARREN OLATUKO FEMINISMOAREN ZIRRIKITUETATIK HARAGO

Feminismoaren bigarren olatuko ideiek zioten emakumezkoek, emakume izate hutsagatik, oinarri biologikoko esperientzia partekatu batzuk zeuzkatela. Literaturaren kasuan ere, joera hori existitu zen. Hélène Cixous-ek jada 1970eko hamarkadan baliatutako *emakumeen idazkera* kontzeptuak gorputzen esperientziei toki berezia eskaini zien, bizitakoak berezko idazkera femenino bati lotuz *Le rire de la Méduse* (Cixous, 2010/1975).

Ildo horretatik, Bordak, argitaratutako liburuan, mota horretako teoria feminista frantziarraren eragina erakusten du. Honela dio: «Gero emazteek ez dituzte, noski, gorputzeko harat-honoratak, eguneroko bizitzako piztuak manera berean aipatzen. Sentsibilitate bero batek, ez esateko izerditsu batek, denak koloratzen ditu» (Borda, 1984, 25. or.). Bizikerak idazkera baldintzatzen duela esaten du Bordak:

Azkenean, emazteen idazkietako perpausek beste ritma bat daukate, ez baitute hats neurri berdina emakume eta gizonen, inguruko aire fresko bera bularretan sartu arren. Emazteek gozotasun eta malsotasun gehiago ematen dute esaldiari; emakumeek hira edo bortiztasun gehiago ematen dute esaldiari. Batzuetan bi manerak nahasiak dira, baina ez dute sekula ezazolkeriarik, indiferentziarik erakusten beren obretan. Gizonetzkoak, beren pertsonaien edo beren gaien atzean askoz hobegiago [sic] gorde daitezke... (Borda, 1984, 25.-26. or.).

Hitz horiei jarraiki, emakumeek idazteko era berezia daukate: batzuetan suabeagoa, beste batzuetan indartsuagoa. Betiere indiferentziarik gabea, nolabait emakume izaera paragrafoetan barrena agertzen dela dirudi Bordaren hitzei jarraikiz. Ideia

hori emakumeen idazkera lehenengo pertsonari lotzearen adierazgarri izan daiteke, eta pentsamendu arketipikotik esperientzia errealeranzko biran kokatu dezakegu hori. Izan ere, gizonetzkoen literaturan irudikatuta agertzetik emakumeak idazle izatera igarotzean, aurretik kontatu ez diren istorioak kontatuko ditu, ikuspegi berri batetik.

Mintegik, *Jakin* aldizkarian argitaratutakoan, emakume guztiak emakume izateagatik partekatutako lengoia baino, zenbaitek izandako esperientzia sozial berdintsuei erantzuteko estilo gisa idatzi zutela argudiatzen du: «Esaterako, produkzio literarioa idazlearen sexuaren arabera iker liteke, baina baita, eta batez ere, hizkuntzaren arabera, jatorri soziala, habitat-mota, adina, pentsamoldea, ideologia, eta abar luzea kontutan harturik» (Mintegi, 1987, 8.-9. or.).

Emakume kategoriatik harago, esperientzien eta kasuistika askotarikoak nabarmentzeko joera 90eko hamarkadan sortuko zen aniztasunaren feminismoa edo feminismo postmodernoarean ildoan kokatzen dugu. 80ko hamarkadako berdintasunaren feminismitik eta diferentziaren feminismitik harago joateko nahia adierazi zuen joera berri horrek (Epelde et al., 2015, 240. or.). Aniztasunaren jarrera hori Teresa del Valle 90eko hamarkada bukatuta idatzitako *Emakumeak Euskal Herrian* liburuan ere antzematen dugu, emakumeen errealtate bakarrik ez dagoela nabarmentzen baitu, heterogeneitatearen nagusitasuna aitortuz (Del Valle, 2001, 12. or.); orobat, liburuan euskal literaturako eta arte sorkuntzako autoreei buruz mintzatzean ikuspuntu horretatik aritzen da.

Mintegik egiten duen baldintzatzaileen identifikazioa (hizkuntza, jatorri soziala, adina...), emakumezkoen idazkeraren eztabaidan garrantzitsua izan zen, esentzialismotik nolabaiteko distantzia lortzeko eta gizarteak banakoetan duen eragina nabarmentzeko. Are gehiago, Mintegik *iza-era* eta *ego-era* kontzeptuak baliatu zituen izate ontologikoaren aurrean gizartearen eragina nabarmentzeko:

Mendeetan zehar jasandako *ego-era* batek, kolektibo zabal baten *iza-era* baldintzatu du. Konsustantziala baino, edukazionala da eme-kondizioa, hezkuntzaren fruitu. Ez dugu sinesten sexu-diferentzia dagoenik, baina desberdintasunak egon daudena onartu behar dugu. Eta desberdintasun hauek, idiosinkrasian oinarritu ordez, sozialki egin den *hitza*-rekiko erabilpen desberdina kontutan harturik esplikatzeko ditugu (Mintegi, 1987, 19.-20. or.).

Bigarren olatuko ekarpenekiko kritikotasuna, bereziki esentzialismotik harago joate hori, aipagarria iruditu zitzaion Olaziregiri ere (1999, 18. or.). Bakoitzaren esperientzia propio errealekiko interesa pizteko motibazio gehigarria izan zela pentsa dezakegu. Testuan zehar, Mintegik Virginia Woolfen eta Simone de Beauvoirren ideiak berrikusten ditu, horien mugak aditzera emanaz, nolabait problematizatuz ondorioen atalean; aitzitik testu berean Celia Amorosekin bat datorrela ematen du aditzera, emantzipazio bide bakarra ez dagoela esanez, eta askotarikoak izan ahal direla bideak. Horrela, ikusten dugu askotariko esperientzietarako bidea zabaltzen duela. Feminismoaren ulerkera motak uztartze aldera, bereziki berdintasun eta desberdintasunarenak, ikuspegi fenomenologikoan oinarritzea bizitako esperientzian enfasi berezia jarriz lagungarria izan daiteke

(López, 2014, 46. or.). Izan ere, sexu femeninoak ez ezik, bizi-esperientzia beste elementu batzuek baldintzatzen dutela ulertzeko laguntzen digu, Mintegik azaldu bezala.

Dena den, ikertzen ari garen garaian, gaur egun ez bezala, bigarren olatuko esentzialismotik urruntzen zen genero performatibitatearen teoria oraindik ez zegoen garatuta. Gorputzari lotutako ideia horiek 90eko hamarkadan zehar, esparru anglosaxoian garatu ziren, baina Euskal Herrira heltzeko urte batzuk behar izan ziren. Urteak igarota, *Gorputza eta generoa euskal kultura eta literaturan* argitalpen aitzindarian, Meri Torrasedek (2012) egindako sarrera teorikoan ageri zen Butlerren isla. Besteak beste, bere ideien eragina nabaria da lerro hauetan, Torrasedek berak adierazi bezala: «Generoa ez da original (sexua) batetik eratorritako kopia, kopia baten kopiaren, kopiaren kopia... baizik» (Torras, 2012, 24. or.). Premisa horri jarraikiz, generoa ez dago sexuari zuzenean lotuta, eta ereduaren errepikapenen bitartez emakume izateko era bakarra ez dagoenez, idazkera komun zehatz eta hertsirik ere ez dagoela ondoriozta dezakegu, Mintegik esandakoaren ildotik.

Azkenik, Linda Whiteren kasuan, ez du emakume-idazkerari buruzko aipamen zuzenik egiten, baina bere ikertzeko era aztertuz, ikusten dugu errealitate soziala kontuan hartzen duela; ikuspegi biologikotik harago doa. Egia da kategoria batean sartzen dituela emakume idazleak; esaterako, kritikariei egiten dizkien galderetan emakumeak kategoria batean txertatzen ditu (White, 1996, 330. or.). Hala ere, idazle bakoitzaren kasuistika partikularra ezagutu nahi du haien zatitza prestatutako galderetan, bakoitzaren berezitasunak azaleratuz.

6. IKUSPUNTU ARKETIPIKO ETA MASKULINOAREN BERRIKUSPENA

Behin autoreen posizionamendu kontzientea eta emakumeen idazkerari buruz garai hartan zuten ikuspegia aztertuta, emakume idazleen esperientzien azterketaren bilakaera ikusiko dugu. *Corpusean* murgildu aurretik, arketipoenganako interesaren zedarri bat aipatu behar dugu, 70eko hamarkadakoa. Leioan 1977an egindako Euskal Herriko I. Jardunaldi Feministei buruz ari gara. Eztabaidagaien artean, *Hezkidetzak: emakumeen irudia testu-liburuetan. Pedagogiaz mintzo* mintzagaia izan zuten hizpide (Epelde Pagola et al., 2015, 101. or.). Horrek erakusten digu ordurako arketipoenganako interesa piztuta zegoela euskal testuinguru feministan, ikergai ditugun aurretik.

Literaturaren kasuan, emakumezkoek sortutako lanen erreferentziaren gabezia zela medio, gizona zekoek sortutako emakumezko pertsonaiak ikuspuntu kritikotik aztertu zituzten. Atal honetan, Bordaren liburuan eta *Jakin* aldizkarian zentratuko gara; Whiteren tesia alde batera utziko dugu, ez baitu arketipoen ideia lantzen. Orobat, ikuspegi osatuagoa lortze aldera, arte plastikoetan eta antropologian egondako joera parekoak emango ditugu konparagai.

Irudikapenen barnean, begiradaren garrantzia nabarmendu beharra dago. Irudikapenak gizona zekoek eginak izanik, begirada maskulinitatik abiatutako ikerketarako sorkuntza-lanak zituzten esku artean, aztertzen ari garen iturriek. Hau da, gizona zekoen

begiradatik sortzen zituzten emakumezko pertsonaiak eta horien arketipoak. Ikusizko arteetan begiradari buruz egindako ekarpenak aplikagarriak dira literaturaren kasuan, honi lotuta. Esaterako, John Bergerrek Mendebaldeko artearen historiari erreferentzia eginez, koadroetan agertzen ziren emakumeen irudikapenak gizonezkoen begiradarako eginak zirela argudiatu zuen, desiraren begirada bati erantzunez (Berger, 2002). Desiraren begiradaz gain, bestelako begiradak ere aipa ditzakegu, negatiboak direnak bereziki. Adibidez, Bordak «Emakumeak euskal gizartean» atalean aurkezten dituenak. Atal horretan, pertsonaien bizitzeko erari erreferentzia egiten zaie:

Gure ohiduretan, bertso edo kantuetan, emakume ixilak, plegatuak, fededunak, haurrez kargatuak gutti aipatzen dira. Gehienak eskema horrekin bat bazetozelakoan. Beste marimutiko, gizonkari, edale, pipatzale, buhame, zarpail, alfer (auher, nag) haiek sor arazi literatura polita badugu. [...] Alde txer hori agertzen bazaigu ardura, beste alde bat ere argiratzen da: emazte krudelak gizongai amoros maitemindua sufri arazten duela (Borda, 1984, 8. or.).

Begirada maskulino horren azterketa 1987ko *Emakumea eta literatura* alean jorrazten da. Hots, Tere Irastortzak emakumezkoak gizonezkoen literaturan izandako irudikapenak aztertu zituen; eta ez hori bakarrik: argitalpen berean, Gema Lasartek buelta eman zion proposamenari eta gizonezkoen irudikapenak emakumezkoen literaturan ikertu zituen. Azken hori aztertuko ez dugun arren, interesgarria da aipamena egitea, kontrapuntuak existitu zirela ikusteko.

Irastortzak Bernart Etxepareren, Arnaut Oihenarten, *Orixeren* eta Txomin Agirre-
ren lanak izan zituen mintzagai artikuluan. Etxepareren kasuan bi figura bereizten ditu: birjina eta emakume erreala. Azken horri bideratutako poesiak amodiozkoak dira: normalean emakumeak ez du erantzuten, eta bere edertasuna kontuan hartuta goratzen da. Oihenartek maitalea eta emaztea bereizten ditu. Ezkontide ez dena gizonaren plazerera bideratuta dago soilik. Orixeren kasuan, emakumeak beti gizonezkoen figurei lotuta ageri direla azaltzen du Irastortzak, eta Agirre-
ren lanetan bi multzotan banatzen ditu: emakume eredugarria, salbuespen gisa, eta oro har eredugarriak ez diren emakumeengan ikuspegi negatiboa proiektatzen duena. Laburbilduz, ikusten dugu tipologia zehatzak zeudela, eta betiere figura maskulinoen balorazioei lotuta.

Baina emakumeen irudikapenen ikerketa euskal testuinguruan ez zen soilik literaturaren esparruan egin. Artean, pinturan zehazki, ikonografian oinarritutako ekarpena egon zen. Hala ere, ikusiko dugunez, literaturaren arloarekin alderatuta, kritikotasun gutxiagorekin aztertu zen. Ikerketa horiek Xesqui Castañerren eskutik etorri ziren. 1980ko hamarkadan zehar, gizonezko pintoreek egindako artelanetako irudikapenei erreparatzen hasi zen. XIX. eta XX. mendeko euskal gizonezkoen pintura hizpide, emakumeen irudikapenak aztertu zituen. Lehendabiziko ekarpena 1984an argitaratutako artikulua batekin etorri zen (Castañer, 1984). Ekarpene hori aztertuko dugu, literaturarekin alderatzeko.

Castañerrek irudikapen femeninoen taxonomia osatzen du, literaturan gertatzen den moduan, hainbat kategoria osatuz. Hala ere, esparru artistikoan tipo gehiago azalartzen

da. Besteak beste, esparru erlijiosoari lotuta, elementu sinboliko gisa adulterioa eta fidelitate irudikatzeko baliatutako emakumeak aipatzen ditu Castañerrek. Bestetik, emakumeak kategoriatan estetiko gisa aztertzen ditu. Haurtzarotik hasita, nagusitu arte, irudikapen kostunbristetan duten tokia azaltzen du: bikotea, erromeria, erlijio-praktika, familia, dantza eta musika, aisialdia, eta abar. Horrez gain, biluziak aztertzen ditu, banakakoak zein taldekoak, eta, horiekin batera, erretratuak.

Gainera, interesgarria da Castañerrek euskal antropologiari lotuta egiten duen hausnarketa:

la sociedad matricentralista vasca y el protagonismo femenino en dicha sociedad influye en el quehacer creativo del artista vasco, siendo abundantes las representaciones femeninas en todas sus facetas. El artista descubre en la iconografía femenina, una prolongación de su propio círculo familiar y cultural que le lleva a identificarse totalmente con el tema (Castañer, 1984, 98. or.).

Horren aurretik, emakumea elementu estetiko gisa ulertzen zutela adierazten du, anekdotiko gisa: handitasunik gabea, baina atsegina. Literaturarekin alderatuz, ikusten dugu artearen ikerketa-esparrua ideia feministekiko atzerakoiagoa zela, eta ikuspuntu antropologiko tradizioaletik abiatzen dela, ordurako Teresa del Valle emakumeen esperientziatik antropologian ikertzen hasia bazen ere (Del Valle, 1982a, 1982b, 1983).

Feminismoari lotutako erreferentzia bakarra XIX. mende bukaerakoa da; hau da, lehenengo olatukoa (Castañer, 1984, 96. or.). Aipamen hori ikertutako koadroen testuingurua azaltzean egiten du, baina gero koadroetan ez da horren eraginik nabaritzen. Ikusten dugunez, Castañerrek irudikapenetan begirada maskulinoa ikertzen du, bai gizonezkoek pintatutako koadroak aztertzeagatik, bai oinarri teorikoetan gizonek sortutakoak izateagatik, berrikuspen feministarik gabe. Hala ere, emakumeen irudikapenekiko interesa adierazten du, literaturan gertatu zen garai berean.

Literaturarekin alderatuko dugun beste diziplina akademikoa antropologia da. Antropologia sozialak gizartearen oihurak ikertzen dituen bezala, diziplina horren metodoak esperientzia ikertzeko aproposak direla dirudi. Dena dela, bizitza errealetik abiatuta sortutako iruditeria kolektiboa ere izan dute antropologo sozialek ikerketa-gai, nahiz eta laster esfortzuak esperientziara bideratu ziren.

Pentsamendu mitologikotik errealitaterako saltoa euskal testuinguruan gertatu zen. Diziplinen artean, euskal antropologia izan zen hori egin zuen lehendabizikoa, Teresa del Valleren eskutik. Del Vallek, *Mujer vasca. Imagen y realidad* argitalpenean (1985), Barandiaranek euskal mitologian emakumeek zuten garrantzia goretsi zuela esan zuen, baina ez zuela errealitateko egoera aztertu. Antropologian argitalpen horrek jauzi epistemologikoa eragin zuela argudiatu du Mari Luz Estebanek. Izan ere, Barandiaranek emakumeen iritziak eta bizipenak ez zituen kontuan hartu, mitologiara eta baserriko irudikapenetara mugatu baizik (Esteban & Hernández, 2016, 8.-9. or.).

7. ESPERIENTZIA ERREALERANZKO BIRA: DIBERTSIFIKAZIO GARAIA

Ikusi dugunez, existitzen ziren irudikapenen berrikuspena egin zuten ikerlariak. Horrez gain, esperientziarako biran, emakumezko autoreek bizipenen aniztasuna nabarmendu zuten haiek istorioak kontatzen hasi zirenean, arreta banakoaren esperientziei bideratuz. Baliteke aldaketa hori autokontzientzia maila altuagoaren garapenari lotuta gertatu izana. Izan ere, Emakundek (1995, 21. or.) plazaratutako ikerketa baten arabera, 31-45 urte bitarteko emakumeek azken urteetan autokontzientzia prozesu nabariena bizi izan zuten, zehazki, esparru sozialean izandako sozializazio-maila altuagoak autokonfiantza garatzen lagundu ziela argudiatuz; guk ikertu ditugun autoreen jaiotza-urtea kontuan hartuta, adin-tarte horretan kokatzen ditugu⁸.

Idazleen egoerari begira, esaterako, literaturaren alorrean egindako sarrerari buruz mintzatzen zaigu Mintegi:

zera ondoriozta dezakegu: hitzaren munduan emakumeak egin duen sarrera, berantiarra eta mugatua izan dela, eta literatura, jakina, hitzez osatzen da, berbez elikatzen. [...] Baina korapilatsuen ez da zer-nolako sarrera izan duen emakumeak hitzaren munduan, baizik eta nola moldatzen den mundu horren barruan (Mintegi, 1987, 15. or.).

Behin atentzioa esperientziara bideratuta eta hori ikertzeko nahia zela eta, anekdotik sistematikorako bidea hasi zen: emakumeen izena gizonen izenen artean eta noizbehinka agertzetik, emakumezkoen lanak eta horien atzeko bizipenak –bai banaka eta bai kolektiboki– emakumezko autoreen bildumak osatzera pasatu ziren.

Bildumarako joeraren atzean, Linda Whiteren tesia izan zen saiakerarik nabarmena. Multzokatze horren parte bat elkarrizketekin osatu zuen. Elkarrizketatuentzako galderak prestatzerakoan, eskertzak adierazitako tokian, Teresa del Vallek lagundu zion adierazi zuen Whitek (1996, ii. or.), autoreen esperientziari buruzko galderak prestatzen hain zuzen. Tesian eranskin gisa txertatutako galdeketetan, autoreei esperientzia pertsonalari lotutako galderak egin zizkien. Egindako galderetan, adibidez, emakumeen mugimenduaren eta idazle feministen eraginik jaso zuten galdetu zien (White, 1996, 326. or.), eta Charlotte Brontek idatzitako «Ni ez naiz gizona, ezta emakumea. Ni idazlea naiz» esaldiari buruz zer zeritzoten galdetu zien, baita ere emakume ala idazle izatea, zein zen garrantzitsuena (White, 1996, 328. or.). Idazlanetan elementu autobiografikorik ba ote zegoen ere galdetu zuen Whitek (1996, 328. or.). Ez hori bakarrik, idazleek literatur sisteman zuten kokapenari buruz ere itaundu zien: zehazki, idazleen artean beren buruak non kokatzen zituzten; emakumezkoen ala gizonetzkoen artean (1996, 329. or.). Azkenik, nahiz eta kritikariei egindako galderak desberdinak

8 Hauek dira aipatutako tartean kokatutako jaiotza-urteak: Laura Mintegi, 1955; Itxaro Borda, 1959 eta Tere Irastortza, 1961. Linda White tartetik kanpo geratzen da, 1949. urtean jaio baitzen, baina Estatu Batuetatik lan egiten zuenez, eta han gertatutako 1970eko bultzada feminista kontuan hartuta, ez da harrizkoa autokontzientzia prozesua lehenago abiatu izana.

izan, bat antzekoa izan zen. Emakumek sortutako literatura euskal literaturaren barnean non kokatzen zuten galdetu zien (White, 1996, 329.-330. or.).

Arte plastikoaren kasuan ere, nabarmentzen hasi zen esperientzia femeninoak errealitatean oinarritutako bizipenen aniztasunetik (tipologia arketipikoetatik harago) ulertzeko joera. Lourdes Méndezen ikerketak eragin zuen biratze hori. Del Valle zabaldutako bidetik, esperientzia femeninoei bideratu zien arreta Méndezek, artean esperientzia horiek nola adierazten ziren ikertuz. Aurretik, Castañerrek artearen historiaren ikuspegitik eta pentsamendu arketipikoari lotuta egindako artikulua akademikoa aipatu dugu; zehazki, gizonetako artistek irudikatutako emakume tipologiaren ingurukoa. Dena dela, Méndez antropologoaren ikerketa heldu arte, ez zen emakume artistek sortutako irudi femeninoei buruzko ekarpenik egin. Méndezek, bereziki, emakume sortzaileek gorputz femeninoei begira egindako lanak ikertu zituen (Méndez, 2002, 2006).

Méndezen ekarpen akademikoek gain, erakusketa bat nabarmendu behar dugu, bildumaratzearen ildoan: *El puñalito y un puñao* (Andrieu, Elorza & Olaizola, 1996)⁹. 56 emakume artistaren lanak Bizkaiko zenbait espaziotan erakutsi zituzten martxoaren 8ko eguna zela eta. Erakusketaren katalogoan, lanak aurkeztu aurretik, zenbait testu ageri ziren, testuinguratzeko xedearekin. Concepción Elorzak (1996), idatzitako testuan, emakume artisten ekarpenetan jartzen du enfasia eta esperientzien aniztasuna aipatzen du, biologikoki edota kulturalki baldintzatutakoa. Kasu honetan berezitasun partekatua batzuk aipatzen ditu, baina aitortzen du artistek nolabaiteko erresistentzia izan dutela etiketa horrekiko. Ukapen hori elementu femenino estereotipikoarekin erlaziozuegatik izango zela adierazten du, artearen kategoria orokorrean ezin sartu eta aparteko kutxatila batean txertatua egoteagatik.

Hala ere, Linda Whiteren tesia eta erakusketa ez ziren izaera horretako ekimen bakarrak izan. 1990eko hamarkadaren bukaeran, zenbait emakumeren lanen bilduma egin zen, zenbait erakunde bultzatuta. Ekimen horiek zera zuten komunean: alde bateatik, ikustarazteko nahia; bestalde, nahiko heterogeneoak zirela. Emakume izateagatik autoreek komuneko esperientziak bazituzten ere, norberaren lanen interesak askotarikoak ziren eta hori azpimarratzen ahalegindu ziren emakumeei eskainitako ale berezietan. Joera horretan kokatzen ditugu 1988an sortutako Emakunderen aldizkariaren bi zenbaki; hain zuzen 90eko hamarkadako azken urteetan artista eta idazleei eskainitako ale bana: *Escritoras vascas* (Emakunde, 1998) eta aurretik *Artistas Vascas* (Emakunde, 1997).

Emakunderen argitalpenen alde positiboa da autoreak batu eta ezagutzeko aukera eman zuela, baina feminismo instituzionalean jarraikortasun eza izan zen nabarmen, agian esparru askotara bideratutako sarraldi puntualak egitea zelako helburua eta ez

⁹ Emakumeen Bizkaiko Asanbladak, Bilboko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Emakunde eta enpresa pribatu batzuek babestutako erakusketa izan zen. 1996ko martxoaren 8ko egunaren omenez, Bizkaiko 11 tokitan egin zen. Katalogoa Emakumeari Buruzko Dokumentazio eta Ikasketa Zentruak editatu zuen.

sistema eraldatzea. Emakunderen sorkuntza-legean ageri ziren erakundearen konpetentziak; horien artean: «politika, ekonomia, kultura eta gizarte-bizitzan emakumea aurkitzen deneko egoera aztertu, aribide-alor ezberdinetan aurrera eraman beharreko politika taiutzeko xedezko azterlangintza bereziki suztatuz, horretarako behar diren eskuarteak eskuratuz» (Eusko Jaurlaritza, 1988, 1418. or.). Hala ere, politikaren eta ekonomiaren ikerketa aipatzen den arren, urteak igarota, Lourdes Méndez antropologoak azaldu zuen, Emakunderen izaera instituzionalagatik, ordena ekonomiko edo politikoa aldatzeko asmorik ez zuela, bereizkeria kudeatzea baizik, berdintasuna helburu edukita (Méndez, 2005). Esanak esan, 90eko hamarkadan egindako bilduma horietan sorkuntzari lotutako esperientziak batzea aurretik aipatu dugun aniztasunerako jarrera garatzeko ekarpen lagungarriak izan ziren, literatura eta artearen kasuan horrelako ikerketek jarraikortasuna eduki ez bazuten ere.

8. ONDORIOAK

Laburbilduz, aztertutako argitalpenen bitartez, XX. mendearen bukaeran euskal literaturan suertatutako aldaketa garrantzitsua ulertzeko ekarpena egin dugu. Ez bakarrik garai hori ulertzeko, baita oraina ere. Izan ere, euskal literatur kritika eta ikerketa feministan gerora agertutako loraldi eta esperientziarekiko interesa aurretik egindako lanen hazien emaitzak izan ziren eta aurrekariak gauzatutako paradigma-aldaketa ezagutzea beharrezkoa dugu.

Aztertutako arketipoen ikerketatik esperientzia errealerako bira nabarmen horretan, posizionamendu kontzientearen eta *emakume-idazkera* etiketaren inguruko kritikotasunaren estrategiak ikertu ditugu. Hasteko, bakoitzak idatzitakoa nondik eta nola idatzi zuen ikusi dugu. Borda eta Whiten testuen kokapena argitzeko, adierazpen zuzenagoak irakurri ditugun arren, Mintegik, zeharka, *Jakin* aldizkariko alean kokapena adierazten du. Hiru testuen kasuan, autore bakar batek ere ez zuen emoziorik gabeko objektibotasun orojakiletik idazteko asmorik. Izan ere, idazkera mota hori emakumezko autoreak alde batera uzteko baliagarri izan da historian zehar. Gero, emakumeen idazkeraren eztabaidan murgiltzean, Cixousen ideien eraginetik, emakume izateaz gain, beste aldagai batzuk kontuan hartuz igaro gara *corpus*aren azterketan. Horrela, bigarren olatuko feminismo esentzialistatik, 90eko hamarkadako aniztasunaren feminismoarako bidea egin dugu. Halaber, aniztasunaren feminismoak ekarritako ikuspuntu zabaltzea aurrerago generoaren performatibitatearen teoria jasotzeko lagungarria izan zen.

Arketipoen ikerketari dagokienez, gizonezkoek sortutako emakumezko pertsonaien analisi kritikoak berrikusi ditugu, tipologia mugatu horiek emakumeen esperientzia askotarikoekin bat egiten ez zutela berretsiz. Orobat, garai hartako euskal artearen tipoen azterketan, literaturakoekin alderatuz, kritikotasun feminista eza antzeman dugu; ez, ordea, antropologiaren kasuan, hausleagoa izan baitzen. Esperientziarako aldagaitan, emakume idazleek bizitakoak biltzeko joera izan dugu hizpide. Lehen aldiz bilketa lan sistematikoa egiteaz gain, garaiko autoreen esperientziaren garrantzia aitortu zen, bakoitzaren ezaugarri espezifikoak nabarmenduz. Alabaina, kontraesan kontstantean egindako ekimenak izan ziren, emakume izateagatik bildu arren, bakoitzaren

indibidualtasuna azpimarratzen zelako. Gaur egun oraindik ere irauten duen praktika anibalente horrek emakume kategoria homogeneousatzailetik harago joateko aukera eskaini zien, literaturaren inguruko dinamikak goitik behera aldatu gabe.

Bukatzeko, XX. mende bukaeran gertatutako bira nagusi hau aztertuta, 2000ko hamarkadan suertatutako beste aldaketa feminista ikertu eta alderatzeko bidea zabalitzen du artikulu honek. Zehazki, urte horietan Judith Butlerren performatibitatearen teoriak euskal literatur kritika feministan izandako hastapeneko harrera positiboari buruz ari gara. XXI. mende hasierako etorrera garrantzitsu horren ikerketak 90eko hamarkadarekin zubi-lana egingo du. Ez hori bakarrik; 2010eko hamarkadan literatur ikerketan generoari eta gorputzari lotuta egondako loraldiaren gakoak eskainiko dizkigu, genealogia saretzen jarraitzeko.

9. ERREFERENTZIAK

- Álvarez, A. & Lasarte, G. (arg.). (2012). *Gorputza eta generoa euskal kulturaren eta literaturan*. UPV/EHU.
- Andrieu, R., Elorza, C. & Olaizola, A. (1996). *El puñalito y un puñao* [erakusketa]. Emakumeen Dokumentazio Zentroa.
- Artetxe, M. & Labaka, A. (2019). *Bertsolaritza feministotik (bir)pentsatzen*. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Berger, J. (2002). *Modos de ver* (7. arg.). Gustavo Gili.
- Borda, I. (1982a). Emazte arruntaren koplak. *Maiatz*, 2, 25.
- Borda, I. (1982b). Gaxuxa KAKOLI-ren obraz. *Maiatz*, 3, 30-33.
- Borda, I. (1983). Historia eta betikotasuna... *Maiatz*, 4, 35-36.
- Borda, I. (1984). *Hogoigarren mendeko emakumeak idazle: antología eta ohar zenbait*. Txertoa.
- Castañer, X. (1984). Iconografía de la mujer en los pintores vascos (siglos XIX y XX). *Kobie: Bellas artes*, 2, 95-120.
- Cixous, H. (2010/1975). *Le rire de la Méduse*. Editions Galilée.
- Del Valle, T. (1982a). Investigación antropológica sobre la mujer vasca. *Lurralde: Investigación y espacio*, 5, 121-126.
- Del Valle, T. (1982b). Los estudios sobre la mujer en la antropología vasca. *Zainak. Cuadernos de Antropología-Enografía*, 1, 123-134.
- Del Valle, T. (1983). La mujer vasca a través del análisis del espacio: utilización y significado. *Lurralde: Investigación y espacio*, 6, 251-270.
- Del Valle, T. (1985). *Mujer vasca: imagen y realidad*. Anthropos.
- Del Valle, T. (2001). *Emakumeak Euskal Herrian: (Erresistentziak eta hausturak)*. Gaiak Argitaldaria.
- Egaña, I. (koord.). (2010). *Desira desordenatuak: queer irakurketak (euskal) literaturaz*. Utriusque Vasconia.
- Elorza, C. (1996). Izenbururik gabe. In R. Andrieu, C. Elorza & A. Olaizola (arg.), *El puñalito y un puñao* [erakusketa]. Emakumeen Dokumentazio Zentroa.
- Emakunde. (1995). *Transformaciones en el papel social de las mujeres: análisis cualitativo en Euskadi* (Informe 10).

- Emakunde. (1997). Artistas vascas. *Emakunde aldizkaria*, 27.
- Emakunde. (1998). Escritoras vascas. *Emakunde aldizkaria*, 31.
- Epelde, E., Aranguren, M. & Retolaza, I. (2015). *Gure genealogia femnistak – Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat*. Emagin Dokumentazio eta Ikerkuntza Zentro feminista.
- Esteban, M. L. & Hernández García, M. J. (2016). *Etnografía feminista Euskal Herrian. XXI. mendera begira dagoen antropologia*. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Etxeberria, J. (2015). Literatur kritika feminista zertan den Euskal Herrian [Gradu amaierako lana, UPV/EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/21364>
- Eusko Jaurlaritz (1988). Otsailaren 5eko 2/1988 legea. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 45, 1416-1419.
- Güereca, R. (2019). *Mujeres, conocimiento y poder. Genealogía vindicativa en los medios de comunicación y las academias*. Universidad Autónoma Metropolitana.
- Haraway, D. (1988). Situated knowledges: the science question in feminism and the privilege of partial perspective. *Feminist Studies*, 14(3), 575-599. <https://doi.org/10.2307/3178066>
- Irastortza, T. (1987). Emakumezkoa gizezkoen literaturan: Euskal literaturari errepaso. *Jakin*, 45, 37-58.
- Lekuona, A. (2021). *Euskal Herriko artearen historia feminista baten bila. Genealogia berriak josten. 1950-1972*. UPV/EHU.
- López Sáenz, M. C. (2014). Fenomenología y feminismo. *Daimon. Revista Internacional de Filosofía*, 63, 45-63. <https://doi.org/10.6018/daimon/197001>
- Méndez, L. (2002). Cuerpo e identidad: modelos sexuales, modelos estéticos, modelos identitarios. In C. Blanco Mayor, A. Miñambres & T. Miranda Alonso (koord.), *Pensando el cuerpo, pensando desde un cuerpo* (123.-138. or.). Universidad de Castilla la Mancha.
- Méndez, L. (2005). Una convivencia implícita; «perspectiva de género» «empoderamiento» y feminismo institucional. In R. Andrieu & C. Mozo (koord.), *Antropología feminista y/o del Género. Legitimidad, poder y usos políticos* (203.-225. or.). Federación de Asociaciones de Antropología del Estado Español, Fundación El Monte & Asociación Andaluza de Antropología.
- Méndez, L. (2006). La subversión en imágenes: cuerpos, feminismos y obras visuales occidentales en la década de los noventa del siglo XX. In B. Muñoz González & J. López García (koord.), *Cuerpo y medicina: textos y contextos culturales* (113.-137. or.). Cicon Ediciones.
- Mintegi, L. (1987). Emakume-literatura: zer da eta zertan da. *Jakin*, 45, 7-24.
- Olaziregi, M. J. (1999). Intimismoaz haraindi: emakumezkoek idatzitako euskal literatura. *Oihenart*, 17, 1-75.
- Rodríguez, E. (2019). *Idazleen gorputzak*. Susa.
- Torras, M. (2012). Gorputzaren (hitz) gakoa(n). Ekintza eta pentsamendurako paradigma bat. In A. Álvarez Uria & G. Lasarte Leonet (arg.), *Gorputza eta generoa euskal kulturaren eta literaturan* (17.-26.or.). UPV/EHU.
- Urkiza, A. (2004). *Zortzi unibertso, zortzi idazle*. Alberdania.
- White, L. (1996). *Emakumeen hitzak euskaraz: Basque Women Writers of the Twentieth Century* [Doktore tesia, Nevadako Unibertsitatea, Reno]. ProQuest Dissertations and Theses.